

EUSKADIKO ORKESTRA

ROBERT TREVIÑO

Zuzendari titularra * Director titular



TEMPORADA 21-22 Denboraldia

Brahms	Gaigne	Tchaikovsky	
Glière	Shostakovich	Britten	Ginastera
Mérah	Bartok	Beethoven	
Bernstein	Zhou	Berlioz	Smetana
Dvorak	Mahler	Catalán	Elgar
Dutilleux			Wagner

Dmitri Makhtin ~ Alexey Stadler ~ Tom Borrow ~ Xavier De Maistre ~ Varvara Mei-Ann Chen ~ Yulianna Avdeeva ~ Pinchas Steinberg ~ Ainhoa Arteta ~ Michael Nagy ~ Orfeón Pamplonés ~ Georg Mark ~ Pietari Inkinen ~ Sarah Fox ~ Justina Gringyte ~ Donostiako Orfeoia ~ Asier Polo ~ Pinchas Zukerman

EUSKADIKO ORKESTRA

21-22 Denboraldia: Baikortasuna, aurkikuntza eta musika ona

- Duela urtebete programatutako artista eta obren berreskuratzea, musika asko eta ona deskubritzea eta euskal gizartean dugun rol garrantzitsua berrestea izango dira Kontzertu Denboraldi berri honen ardatz nagusiak.
- Helburu hau bete ahal izateko, gure auditoriumetara sona handiko artista garrantzitsu ugari bertaratuko dira: Pinchas Steinberg, Pinchas Zukerman, Pietari Inkinen, Mei-Ann Chen, Varvara, Yulianna Avdeeva eta Dmitri Makhtin. Gure lurraldeko artista handiak ere izango ditugu gurean, besteak beste, Ainhoa Arteta, Asier Polo, Donostiako Orfeoia eta Iruñeko Orfeoia.
- Euskal sorkuntzaren alde egiten jarraituko dugu eta Pascal Gaigne, Joël Mérah eta Teresa Catalanen obrak estreinatuko ditugu. Azken bi sorkuntza hauek Euskadiko Orkestrak enkargatutakoak dira *Elkano: Mundubira musika bidelagun* proiektuaren baitan, 2022ko udazkenean azken helmugara iritsiko den ekimena.
- Denboraldiko mugari garrantzitsuenen artean aipatzekoak dira hasierako Brahms jaialdia, Brahmsen *Requiema* eta Mahlerren *2. Sinfonia* bezalako obra handien presentzia (azken hau gure berpizte kolektiboa irudikatzeko) eta Zhou eta Dutilleux bezalako konpositore ez hain ezagunen musikaren deskubrimendua.
- 21-22 Denboraldia optimismo gehiagorekin datorren arren, normaltasunerako itzulera patxadaz hartu nahi du orkestrak eta, horregatik, lehen bi programak 600eko gehienezko edukierarekin daude prestatuta, hurrengoetan zabaltzeko aukera egongo den esperoan.

EUSKADIKO ORKESTRA

ABONU-DENBORALDIAREN PROGRAMAZIOA

Itxaropen- eta hobekuntza-garai bat ireki da. Gure helburua baikortasuna eta konfiantza berreskuratu eta kontzertu-aretoetara lasai itzultzea da. Denboraldi zail bat utzi berri dugu atzean. Jarduera ugaritu egin dugu eta kontzertuak maratoni-saio bihurtu ditugu publiko guztiarengana iristeko. Guztira 131 kontzertu eskaini ditugu, horietatik 98 Abonu Denboraldikoak (ohiko 50 abonu-kontzertuen ia bikoitza). Musika sinfoniko asko programatu dugu eta orkestra txikiago batentzako erreperitorio oso bat planteatu dugu, agertokian ere segurtasun-distantziak mantendu behar izan direlako. Eta lortu dugu. Orain baikortasunaz eta programazio onaz hitz egin behar dugu.

Euskadiko Orkestraren 2021/2022 Abonu Denboraldia **irailaren 27an hasiko da Iruñean eta 2022ko ekainaren 8an amaituko da Bilbon**. Lehenengo bi programetan saioak bikoizten jarraituko dugu, 20/21 Denboraldian egin dugun bezala: *Brahms Fest* izeneko lehen saioan 10 kontzertu eskainiko ditugu hamar egunetan ohiko lau hiriburuetan; bigarrean, *Tchaikovsky*, arratsalde berean saio bikoitzak programatu dira hiri bakoitzean. Hirugarren programatik aurrera, edukierari dagokionez normaltasun handiagoa lortzea aurreikusten da.

Ildo nagusiak: baikortasuna, aurkikuntza eta ibilbide luzea

Brahmsen sinfonismo handia bezalako adibideek dakarten baikortasunean jarri nahi izan dugu arreta, haren sinfonia guztiak interpretatuz. Beethoven *7. sinfonia* eta Berliozen *Sinfonia Fantastikoa* dira optimismo horren beste adibide batzuk. Denboraldi honetako beste ildo garrantzitsu bat publiko orokorrarentzat hain ezagunak ez diren obren aurkikuntza izango da, Zhou amerikarra eta Dutilleux frantziarraren obrekin. Gainera, *Elkano: Mundubira musika bidelagun* proiektuari lotutako lanak ere estreinatuko ditugu (Joël Mérah eta Teresa Catalan), baita pandemiari lotutakoak ere (Pascal Gaigne), deskubrimenduaren lan-lerro hori jarraituz.

Ibilbide luzea aipatzen dugunean Robert Treviño orkestrara iritsi zenetik egiten ari den lanaz dihardugu. Adibide garbientakoa Mahler da: haren *1. Sinfonia* arekin estreinatu zen gure orkestraren batutan eta, orduetik, musikagilearen sinfonia eta obra ugari ekarri ditu Treviñok orkestrara. Aurtengoan *2. Sinfonia* handiari helduko dio, 'Berpizkundera' izenez ezaguna, berez 19/20 Denboraldirako aurreikusita zegoena baina pandemiaren ondorioz bertan behera geratu zena. Orain inoiz baino zentzu gehiago du lana berreskuratzea, gure bizitzan berpizkundera irudikatzen baitu, Denboraldiaren irudi den larrosak egiten duen modu berean.

EUSKADIKO ORKESTRA

Brahms Fest hasteko

20/21 Denboraldiari hasiera eman zion Schuberten sinfonia-maratoiaren ondoren, orkestrak formula errepikatuko du eta **Brahms Fest** delakoa aurkeztuko du. Konpositore alemaniarren sinfonia guztiak, *Biolin eta biolontxelorako kontzertua eta Pianorako 1. eta 2. Kontzertuak* interpretatuko ditu orkestrak ohiko lau hiriburuetan eskainiko duen inaugurazio-programako 10 kontzertuetan banatuta. Robert Treviñok, batutan, hiru bakarlarik eta orkestrak berak emango diote forma lurralde osoa zeharkatuko duen eta erronka musikal berria izango den jaialdi honi.

Robert Treviño Denboraldian

Denboraldiko hamaika programetatik seiri helduko die orkestrako zuzendari titularrak. *Brahms Fest* bereziaren irekieraren ostean, Xavier de Maistreren harpa protagonista duen programa originala eskainiko du, Treviñoren bidaide izan den Xostakovitxen *10. Sinfonia* ere barne hartuko duen programa. Otsailean Bernstein ezagunena eta Zhouren musikaren aurkikuntza uztartuko dituen programa amerikar batek jarraituko dio. Azken txanpan Mahlerren *2. Sinfonia* iritsiko da, 'Berpizkundera' izenekoa. Robert Treviño *Elkano: Mundubira musika bidelagun* zeharkaldira igoko da maiatzean, Vianako Printzea saria jaso berri duen Teresa Catalanen *La victoria vacía* obraren estreinaldiarekin. Gainera, Denboraldiko aurkikuntzetako bat ere hartuko du programak: Dutilleuxen *1. Sinfonia*. Treviñok Wagner, Elgar eta Bartoken obrak ere jorratuko ditu, kasu honetan Pinchas Zukermanekin, eta biolajoleak bere ibilbidean bidelagun izan duen Bartoken *Biola kontzertuarekin*.

Estreinaldiak eta erreperitorio berria

Lehen mundubira egin zenetik 500 urte igaro direla gogora ekartzen duen *Elkano: Mundubira musika bidelagun* proiektua ibilbide luzeko beste ekimen bat da, Denboraldi honetan jarraipena izango duena eta 2022ko udazkenean amaierara iritsiko dena. Joël Mérahren *Jakinduriaren usaina* eta Teresa Catalanen *La victoria vacía* hartuko dute Denboraldi honetan aurrekoetan Mikel Chamizok eta Mikel Urquizak utzitako lekukoa.

Elkano: Mundubira musika bidelagun proiektuko bi obrei gaineratuko zaie Pascal Gaigneren *Urrutiko arimak* eta *Urruneko azalaken* estreinaldia.

Gainera, orkestrak lehendabizikoz interpretatuko ditu hiru obra, publikoarentzat aurkikuntza handia izango direnak: Ginasteraren *Harparako kontzertua*, Zhouren *Orkestrarako kontzertua* eta Dutilleuxen *1. Sinfonia*.

EUSKADIKO ORKESTRA

Zuzendariak, solistak eta abesbatzak

Orkestrak artista mordoa jasoko du berriz ere bere programazioan, baina azpimarratzekoa da berriro ere bakarkako hiru programari helduko diela, bakarlari gonbidaturik gabe, interpretazioan protagonismo handia emango diotenak orkestrari berari.

ZUZENDARIAK: Robert Treviñok presentzia nabarmena izaten jarraituko du sei programarekin eta podiuma beste zuzendari batzuekin partekatuko du gainontzeko programetan: 19/20 Denboralditik berreskuratutako **Mei-Ann Chen**, **Pinchas Steinberg** eta **Georg Mark**; gure orkestraren buru lehendabizikoz arituko den **Pietari Inkinen**; eta orkestraren zuzendari elkartu **Jaume Santonja**.

SOLISTAK: Atal honetan, 19/20 Denboraldirako programatutako **Yulianna Avdeeva** eta **Varvara** pianistak, **Tom Borrow** (pianoa) eta **Alexey Stadler** (biolontxelo) hartuko ditugu lehen aldiz. **Dmitri Makhtin** (biolina), **Pinchas Zukerman** (biola), **Xavier de Maistre** (harpa) eta ilusio berezia egiten digun **Asier Polo** (biolontxelo) bezalako artista handiak berriz izango ditugu gurean. Ahotsetan **Ainhoa Arteta** sopranoa dugu, **Michael Nagy** baritonoa, **Sarah Fox** sopranoa eta **Justina Gringyte** mezzosopranoa.

ABESBATZAK: Martxoan eta maiatzean bi obra sinfoniko-koral handi eskainiko ditugu. Brahmsen *Requiem alemaniarrean Iruñeko Orfeoia* izango dugu bidelagun. Bestalde, Mahlerren obra handia, *2. Sinfonia*, 'Berpizkundera' Donostiako Orfeoia-aren ahotsetan entzungo dugu.

ORKESTRAREN BESTE JARDUERA BATZUK

Udazken diskografikoa

Bere jarduera kontzertistiko garrantzitsuarekin batera, orkestra estilo eta zeregin oso desberdineko grabaketa sorta proiektu batean murgilduta dago. Ekoizpen guztiek dute kalitate-zigilua, eta ingurune desberdinetan eta interes dokumental handiarekin kokatzeko asmoa dute.

AMERICAN COMPOSERS: Udazkenean, *Ravel* en ondoren, Robert Treviñorekin egindako bigarren grabazio diskografikoa argitaratuko du Euskadiko Orkestrak. Oso ezagunak ez diren konpositore amerikarren ekoizpen sinfonikoan oinarritutako grabazioa da. Dagoeneko egina dago grabazioa eta urriaren hasieran kaleratuko da nazioartean, Ondine diskoetxe finlandiarrekin, zeinarekin Treviñok grabazio-hitzarmena sinatua duen datozen urteetarako.

EUSKADIKO ORKESTRA

KALAKAN: Ipar Euskal Herriko taldearekin izandako lankidetzaz berria maiatzean erregistratu zen. Orain Elkar diskoetxea editatzen ari da eta azken emaitza urriaren amaierarako eta azaroaren hasierarako programatutako kontzertuetan erakutsiko da, duela urte batzuetatik orkestrak *KlasikAt* izenpean aurkezten duen *crossover* zikloaren zeinupean. Orkestrak Izaro, Huntza, Zea Mays, Dr. Deseo edo Ken Zazpi bezalako euskal egileekin partekatzen dituen proiektu horien guztien jarraipena izango da kolaborazio berri hau.

GUTIZIA: Txistuaren unibertso sinfonikoa ardatz duen beste proiektu diskografiko baten izenburua da eta Garikoitz Mendizabal du protagonista. *Gutizia* txisturako idatzitako lanen bilduma bat da, 80 minutuko musikan bildu dira eta emaitza udazkenerako egongo da prest Orpheus zigilupean.

SOINU-BANDAK: Asko dira Fernando Velazquezen eskutik orkestrak egiten dituen soinu-bandak, hala nola, *Patria*, *Hil Kanpaiak*, *El inocente* telesaila eta *Poderoso Victoria* film mexikarra. Horiez guztiez gain, datozen egunetan Iciar Bollainek zuzendutako *Maixabel* filmaren soinu-bandaren grabazioari ekingo dio orkestrak Miramonen, Alberto Iglesias musikariak idatzi duena eta zuzenduko duena.

LIDE TA IXIDOR: Santos Inchaustiren musika daraman haurrentzako ipuin liriko bat da *Lide ta Ixidor*. Obra honen berreskurapena Bilboko Koral Elkartearen *Euskal Opera* proiektuaren barruan kokatzen da. Proiektu horren helburua XX. mendearen hasieran Elkartek enkargatutako euskarazko operen partiturak editatzea eta grabatzea da. Haurrentzako opera hau Bilbon grabatuko dute, eta haur abesbatza eta SCBko abesbatza mistoa izango dira bertan.

RAVEL: Puntu honetan ezinbestekoa da apirilaren hasieran argitaratutako CD hau aipatzea, Ravelen katalogoko lan sinfoniko esanguratsuenekin. Ondine zigiluaren finlandiar egikera darama grabazio honek, eta une honetan Euskadiko Orkestraren nazioarteko pasaporterik onenean bihurtu da. Oihartzun handia izaten ari da planetako toki askotan, Japoniatik eta Australiatik AEBetara, Europatik pasatuz, eta oso kritika onak jaso ditu hedabide espezializatu ospetsuenengandik (Gramophone, France Musique, BBC Music Magazine, Diapason...). Konpositorearen alde euskaldunenaren irakurketa musikarari esker, Treviñok eta orkestrak Ravelen lanaren begirada berri bat eskaini dute grabazio honetan eta, ondorioz, nazioartean oso erakargarri bihurtu dute proposamena.

Partekatutako proiektuak

Orkestrak bere konpromisoa mantenduko du **ABAO Bilbao Operaren Denboraldiarekin**, **Bilboko Musika-Músicarekin** eta **BBVAko Jakintzaren Mugak Sarien Galarekin**. Pandemiaren ondorioz ezin izango du

EUSKADIKO ORKESTRA

berreskuratu Donostia Zinemaldian Belodromoak eskaini ohi zuen soinu-banden kontzertu tradizionala, baina Donostiako **Musika Hamabostaldian** eta **Musikasten** parte hartuko du.

Orkestraren **Miramongo Matinéeak** eta **Musika Gela** zikloek aurrera jarraituko dute aurten ere eta aurrerago aurkeztuko dira.

ABONAMENDUAK ETA SARRERAK

Indarrean dauden edukiera-murrizketek abonamendu berriak egitea eragozten digute, baina itxaron-zerrenda batera pasako diren erreserbak har ditzakegu. Baimendutako edukiera handitzen den heinean, abonatu berriak hartzen hasiko gara. Erreserba horiek orkestraren webgunean (euskadikoorkestra.eus) eta telefonoz (943 01 32 32) egin ahal izango dira.

Orain amaitzen ari garen Denboraldian bezala, sarrera solteen salmenta kontzertuak hurbiltzen diren heinean joango da irekitzen, beti ere eserleku liberrik geratuko balitz. Abonamenduen eta sarreraren prezioak mantentzea erabaki da Denboraldi honetan.

MEZENASGOA

Gizartean oso beharrezkoa den tresna kulturala dela sinetsita, Euskadiko Orkestrak mezenasgoaren bidez publikoarekin konektatzeko tresna berri bat aktibatu du. Horri esker, lurraldeko proiektu kultural hau garatzen lagundu nahi duten pertsonak beren **ekarpenekin** egin ahal izango dute.

Mezenasgoa etorkizuneko tresna beharrezko eta osagarria da administrazio publikoen diru-laguntzen politikentzat, eta kultura eta gizartea garatzeko eta laguntzeko bitarteko gisa ezartzen joango da. Orkestrari egindako ekarpenek, edozein modalitatetan, **zerga-kenkaria** jasotzeko aukera emango dute.

ESKERTZA

Azkenik, orkestrak eskerrak eman nahi dizkie bere jardueren garapenean parte hartzen duten erakunde eta eragile guztiei: abonatuei eta, oro har, publikoari, erakunde babesleei eta laguntzaileei, kultur eragileei, komunikabideei eta abarri, Euskadiko Orkestraren jarduera ahalbidetzen baitute.

EUSKADIKO ORKESTRA

BEREN BABESA DUGU ^ NOS APOYAN

